

LANBIDE-HEZIKETARAKO LANKIDETZA-PROPOSAMENA

2020-2021 IKASTURTEA

MUGARIK GABEKO EKONOMILARIAK

Mugarik gabeko Ekonomilariak erakundean hainbat urte daramatzagu LHko zentroetan lanean, ekonomia bidezkoagoa sustatzen. Gure helburua gizarte-eredu bidezkoagoa eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzea da, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dugu hezkuntzatik abiatuta lan egitea, teoria eta praxia Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin bateratuko dituzten espazioak sortuz, eredu gauzagarri gisa, eta gizartearen eta ingurumenaren iraunkortasun eta jasangarritasuna bermatuz.

Urte hauetan irakasleekin egindako lanari eta ezarritako lankidetzari esker, gure lana gelan garatzeko eduki, espazio eta formatu egokienak identifikatu ahal izan ditugu. Hala ere, COVID-19aren garapenak datorren ikasturteari begira sorrarazi duen ziurgabetasuna dela eta, MgEko kideok beharrezkotzat jo dugu espazio eta formatu horiek birplanteatzea, bai ikasleei bai irakasleei malgutasuna eta egokitzapena eskaintzeko. Horregatik, jarraian aurkezten ditugun **hainbat proposamen formatu birtualean egin ahal izango dira**, ikasgaiak eta dinamikak egokituz, **ikuspegi praktiko, parte-hartzaile eta sentsibilizatzailea** izaten jarrai dezaten.

Hona hemen 2020-2021 ikasturterako gure lankidetzaren proposamena:

PRESTAKUNTZA-SAIOAK:

Prestakuntza-saioak proposatzen dira, MgEko langileek ikasgelan eman beharrekoak; saio horiek, normalean, ordu 1 eta 2 ordu bitartekoak izaten dira, gutxi gorabehera.

Urte hauetan, zeharkako edukiak identifikatu ditugu "**Enpresa eta Ekimen Sortzailea**" eta "**Lan Prestakuntza eta Orientabidea**" modulueterako eta **Administrazioa eta Kudeaketa eta Merkataritza eta Marketina** lanbide-arloetako heziketa-zikloetarako, besteak beste.

Urte hauetan eman diren saioen **gaiak** honako hauek dira:

- Ekintzailtza Ekonomia Sozial eta Solidarioaren bitartez
- Finantza etikoak eta finantzaketa alternatiboa
- Kontsumo arduratsua
- Erantzukizun korporatiboa eta Giza Eskubideak
- Genero ikuspegitik landutako komunikazioa
- Fiskalitatea eta paradisu fiskalak
- Ekonomia Zirkularra
- 2030 Agenda eta GIH (Garapen Iraunkorreko Helburuak)

Aurrez aipatutako gaien hedapenean sartzen diren eskaeretara egokitutako saioak proposatzen dira.

UNITATE DIDAKTIKOAK:

Ikasgeletan sentsibilizazio-saioak eman ondoren, hainbat material sistematizatu dira, eta horiek gida didaktiko batean jaso dira.

“Ekonomia arduratsu, bidezko eta solidario bateranzko urratsak” Gida Didaktikoa hiru unitatek osatzen dute (1.Enpresa eta Giza Eskubideak, 2. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegian erroturiko ekintzailtza, 3.Komunikazioa generoaren eta gisa eskubideen ikuspegitik).

Gida hau ikasgeletan erabil daiteke, proposatzen diren baliabideak ahalik eta modurik egokienean egokituz MgEk lantzen dituen edukiak material gisa sartzeko. Hona hemen unitate didaktikoak erabili dituzten irakasgaiak: enpresa eta ekimen ekintzailea, enpresa ikasgelan, enpresa-simulazioa, erantzukizun sozial korporatiboa, enpresa-komunikazioa eta bezeroaren arreta, prestakuntza eta lan-orientazioa...

[Gida didaktikoa](#) eskuragarri dago on-line deskargatzeko, eta kopia inprimatu bat ere eska dezakezue, helbide honetara idatzita: ecosfron.euskadi@ecosfron.org edo **94 415 34 39** telefonora deituta.

ERRONKAK DISEINATZEA:

Irakasleekin lankidetzan, hainbat irakasgaitako ikasleek diseinatu beharreko jarduerak identifikatu dira, prestakuntza-curriculumean lortu beharreko ikas helburuak eta gaitasunak praktikan jartzeko eta MgEk planteatutako erronka bati erantzuteko. Metodologia horren barruan, azken urteetan proiektu ugari landu dira ikasgelan, eta, ondoren, ikastetxeko gainerako ikasleekin sozializatu dira, parte hartzeko bideak ezarriz.

"**Erronken**" proposamenek hainbat modulu lantzen laguntzen dute ETHAZI metodologiatik, ikasleak edukiez jabetu daitezten eta gaitasun teknikoak zein pertsonalak eta sozialak gara ditzaten: talde-lana, rolen eta zereginen banaketa, pertsonen arteko komunikazioa, gatazken konponketa, gaitasun kritikoa, negoziazio- eta sintesi-gaitasuna, ahozko komunikaziorako trebetasunak, lidergoa, sormena, entzutea... Gure asmoa da "erronkak" eskaintzea, ematen diren prestakuntza-zikloetara egokituz.

Gainera, **Erronketan oinarritutako Lankidetzak-ikaskuntzari buruzko gida – Ekonomia Sozial eta Solidarioa lantzen LHn eta Unibertsitatean** kaleratu berri dugu. Gida horren helburua tresna erraza, laburra eta praktikoa izatea da, gure esperientziatik abiatuta, Lanbide Heziketako irakasleak orientatu ahal izateko erronketan oinarritutako lankidetzak-ikaskuntza aplikatzean, prestakuntza-saioen gaiak landu ditzaten.

Bertan, honako hauek aurki daitezke: esku-hartze mota horren metodologia eta horren aplikazioa; planteatutako erronka nagusien deskribapen laburtua; erronka horiei erantzuteko ikasleek egindako proposamenen adibideak ematen dituzten lanak; eta MgEren eta ikasleen balorazioak, baita ondorio batzuk ere.

[Erronken Gida](#) eskuragarri dago on-line deskargatzeko, eta kopia inprimatu bat ere eska dezakezue, helbide honetara idatzita: ecosfron.euskadi@ecosfron.org edo **94 415 34 39** telefonora deituta.

ONLINE IKASTAROA:

Prestakuntza-saioen eta aurrez aurreko ikastaroen jarduera osagarri gisa, duela hiru urtetik hona “[Jarri martxan beste ekonomia baten alde: Ekonomia Sozial eta Solidarioa](#)” online ikastaroa eskaintzen da. Ikastaro horrek gazteak ahaldundu eta gaitzen ditu, prestakuntza-tresnen bidez eta gizarte-ekintzailetzarako benetako esperientziak ezagutuz. Horrela, parte-hartzaileek beren gaitasunak hobetzen dituzte eta haien gizarteratzea eta laneratzea sustatzen da. Ikasturte honetan beste edizio bat egitea espero da.

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN EKIMENAK BISITATZEA:

EAEEn Ekonomia Soziala eta Solidarioa sustatzen duten ekimenera bisitak koordinatzeko aukera emango da, [Euskadiko Merkatu Sozialean](#) biltzen diren **REAS erakunde bazkideetatik (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea)** eta ESS sustatzen duten beste erakunde batzuetatik abiatuta. MgEk erakundeekiko harremana erraztuko du bisita bat hitzartzeko, ESSren esperientzia praktikoak ikasleei hurbiltzeko eta egungo eredu ekonomikoaren alternatiba bideragarri gisa aurkezteko.

EKINTZAILEEN ESPERIENTZIA IKASGELAN:

Kolektibo kalteberetako pertsona ekintzaileek ikasgelan esku hartzea proposatzen da. Aukera ematen da **ekintzaile migratzaileek, emakumeek eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen** ikasgelan dituzten ekintzailetza-esperientziak partekatzeko. Horrela, ekintzailetzari buruzko errealitate desberdinetara hurbilduko dira, kulturen arteko bizikidetzak sustatuz eta euskal gizartean kolektibo horiei buruz errotuta dauden estereotipoak hautsiz. Gainera, ikasgelan ezagutzak transmititzea eta elkar ikastea ahalbidetzen da. Azken urteotan, jarduera hori zentroek LPO eta EEE sailaren eskutik antolatzen duten Pertsona Ekintzailearen Egunean kokatu dugu.

ZINE-FOROAK:

Zine-foroak egitea planteatzen da, ikasleen artean ikuspegi kritikoa sustatzeko, landu ohi ditugun gaiei buruzko **filmak eta dokumentalak** emanaz. Horrela, emanaldiaren ostean **eztabaida** bat sortuko da eta ikasgelan edukia landuko da, filmek eragiten duten gogoeta horri laguntzeko eta ikasleak gaur egungo gai garrantzitsuei buruz sentibilizatzeko. Interesa duten irakasleek eta MgEk batera aukeratuko dute filma, eta eztabaida MgEk edo egokitzat jotzen den pertsonak edo erakundeak moderatuko du.

PRESTAKUNTZA PRAKTIKAK:

Ikaskuntza-prozesua osatzeko, gizarte-ekonomiako eta ekonomia solidarioko erakundeetan praktikak egiteko aukera ere lantzen da, Lantokiko Prestakuntzak eta LH dualak eskaintzen duten aukera aprobetxatuz. MgEk harremanetan jartzen ditu zuen ikastetxeak praktiketako ikasleak hartzeko interesa duten ESSko erakundeekin.

Praktika horiei esker, ikasleak profil kualifikatua duten zereginak egin ditzake, praktikak ikasketen amaieran egiten baitira, eta, horrela, bere gaitasunak eta ezagutza eguneratuak eskaintzen zaizkio erakunde bakoitzari. Hezkuntza-eremuaren eta enpresaren benetako ingurunearen arteko lankidetzaz izanik, batzuek besteengandik ikasten dute, eta alderantziz, Ekonomia Soziala eta Solidarioa benetako alternatiba iraunkor gisa ezagutaraziz.



Animatu gurekin harremanetan jartzen!

Lanbide Heziketako zentro bateko irakaslea bazara, ez izan zalantzarik MgErekin harremanetan jartzeko, lankidetzarako modurik onena azter dezagun:

- **Prestakuntza-saioak** emanaz
- **Gure baliabide didaktikoen** bidez
- Ikasleen lanerako **erronka** bat proposatuz
- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren **ekimen bat bisitatuz**
- **Ekintzaile bat ikasgelara** gonbidatuz
- **Zine-foro** bat eginez, ondorengo eztabaida eta guzti
- **Ikasleen praktikak** sustatuz ekonomia sozial eta solidarioko erakundeetan
- **Elkarrekin proiektuak** garatuz